

**BALORE-MERKATUKO
JOKABIDEA ARAUTZEKO
BARNE-ERREGELAMENDUA
KUTXABANK ETA CAJASUR BANCO**

Kutxabankeko Administrazio Kontseiluak onartua 2016ko abenduaren 29an.

Aurkibidea

I. TITULUA. ARAU OROKORRAK	3
II. TITULUA. ERAGIKETA PERTSONALAK.....	4
III. TITULUA. MERKATU-ABUSUA PREBENITZEA.....	8
IV. TITULUA. INTERES-GATAZKAK KUDEATZEKO POLITIKA	18
V. TITULUA. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEEN ETA PENTSIO-FUNTSEN GORDAILUZAINZA.....	21
VI. TITULUA. ERREGELAMENDUA APLIKATZEA.....	23
1. ERANSKINA. DEFINIZIOAK.....	25
2. ERANSKINA. APLIKATZEKO DEN INDARREKO LEGERIA	36

I. TITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Jokabidea Arautzeko Barne Erregelamendu hau eta erregelamenduarekin batera doazen eranskinak (aurrerantzean JABE erregelamendua) aplikatuko zaizkie KUTXABANK, S.A. eta CAJASUR BANCO, S.A.ri (aurrerantzean Entitateak) eta honako pertsona hauei (aurrerantzean, lotutako pertsonak):

- a) Entitateetako Administrazio Kontseiluetako kideei.
- b) Entitateetako Zuzendaritza Batzordeetako kideei.
- c) Entitateetako bestelako zuzendaritzako kideei, enplegatuei, ahalordedunei eta agenteei, beraien lanak zuzeneko lotura badu baloreen merkatuko eragiketekin eta jarduerekin.
- d) Entitateetakoak diren edo zerbitzua bertan eskaintzen duten bestelako pertsonen, Betetze Funtzioaren arabera aldi baterako erregelamenduari lotuta egon behar badute, merkatu horien inguruko eragiketa batean parte hartzeagatik edo eragiketa ezagutzeagatik.

Betetze Funtzioak etengabe eguneratuta eta gobernu-organoen nahiz agintari gainbegiratzailen esku edukiko du erregelamendu honi lotutako pertsonen zerrenda.

2. Entitateek balore-merkatuan egiten dituen jarduera guztiei aplikatuko zaie erregelamendu hau.

2. artikulua. Eginbehar orokorrak

Erregelamenduari lotutako pertsonen beraien jarduerako eremu espezifikolari eragiten dioten balore-merkatuko indarreko legeria, erregelamendu hau eta berau arautzen duen barne-araudia ezagutu eta bete beharko dituzte, eta baita horien aplikazioan lagundu ere.

II. TITULUA. ERAGIKETA PERTSONALAK

3. artikulua. Xedea

Titulu hau aplikatuko zaie lotutako pertsonak gauzatzen dituzten aginduei eta eragiketei, eragiketa horien objektu direnean: merkatu arautuetan, NSM edo NSA sistemetan¹ negoziatzen diren balore negoziagarriak eta tresna finantzarioak, edo merkatu edo sistema horietan negoziatzen den azpikoa duten balore negoziagarriak eta tresna finantzarioak, betiere agindua edo eragiketa merkatu horien barruan edo horietatik kanpora gauzatzeko edo exekutatzeko eragozpenik gabe.

4. artikulua. Jarduketa ez-espekulatiboa

Erregelamendu honi lotutako pertsonak beren kontura erositako edo saldutako balore negoziagarri edo tresna finantzarioak inola ere ezingo dira saldu edo berriro erosi erosketa edo salmentako eragiketa egindako saio edo egun berean.

5. artikulua. Nahitaezko bitartekaritza

Bitartekaritza ez da nahitaezkoa izango eragiketa pertsonalak Kutxabank, CajaSur edo taldeko enpresen bidez egiten direnean.

6. artikulua. Aginduak formalizatzea

1. Erregelamenduari lotutako pertsonen aginduak idatziz formalizatuko dira, Entitateek horretarako erabilgarri duten edozein bitarteko telematiko, informatiko edo elektronikoren bidez, edo telefonoz agindua grabatuta geratzen bada.

Entitateen bidez formalizatutako aginduak, aginduak justifikatzeko fitxategi batean sartuko dira.

2. Erregelamenduari lotutako pertsonak baloreei edo tresna finantzarioei buruzko edozein eragiketa-mota agintzen dutenean, eragiketa-mota bakoitzaren berriarazko araudian ezarritako funtsak eta bermeak emango dituzte, eta, hala dagokionean, alderdiek sinatutako kontratuan ezarritakoak. Eskurako eragiketetan funts-hornidura eginda eduki behar dute, edo baloreen edo dagozkien eskubideen titulartasuna edo eskuratzea egiaztatu behar dute.

¹ Ikus JABEko 21. eta 23. definizioak.

7. artikulua. Komunikazioko eta informazioko eginbeharrak

1. Erregelamenduari lotutako pertsonak, komunikazio xehatu bat egin beharko dute hilabete natural bakoitzaren amaieran, Entitateen Betetze Funtzioari zuzenduta. Aurreko komunikazioaz geroztik gauzatutako agindu eta eragiketa guztiak sartuko dira komunikazio horretan. Agindu eta eragiketen zerrenda hurrengo hilabeteko lehen hamabost egunetan entregatu behar da, idatziz edo formatu elektronikoa, eta aurreko hilabeteko eragiketak azaldu behar ditu.

Obligazio horretatik salbuetsita geratzen dira inbertsio kolektiboko erakunde harmonizatuetako partaidetza edo akzioen gainean egiten diren eragiketa pertsonalak, baldin eta eragiketak ukitzen duen pertsonak edo, eragiketa beste baten kontura egiten bada, pertsona hark ez badute parte hartzen erakundearen kudeaketan.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoari dagokionez, lotutako pertsonak egindako eragiketa pertsonalekin parekatuta geratzen dira eragiketa hauek:

- a) Lotutako pertsonekin familia-harremana duen edonork egindakoak (JABEko 24. definizioa).
- b) Lotutako pertsonak lotura estua duten sozietateek egindakoak (33. definizioa).
- c) Bitarteko pertsonen bidez egindakoak.

2. Entitateak berak direnean jaulkitzaileak, zuzendaritzako ardura duten pertsonak (Administrazio Kontseiluko edo Zuzendaritza Batzordeko kideek eta Entitateetako informazio garrantzitsua eskuratzeko irispide ohikoa duten zuzendaritzakoek) Arauen Betegintzari eta CNMVri komunikatu beharko dizkiete, eragiketa egin eta hiru lanegun igaro aurretik, Entitateen balore negoziagarri eta tresna finantzarioei buruz egindako eragiketa pertsonal guztiak, baldin eta merkatu arautuetan, NSM edo NSAtan negoziatuak badira edo merkatu horietan negoziatzen den azpikoa badute. Gero, balore negoziagarri eta tresna horiekin egindako ondorengo eragiketa guztiak komunikatu beharko dituzte, baldin eta eragiketen balio osoa 5.000 eurotik gorakoa bada urte natural beraren barruan. Era berean, eragiketa horiek agintari eskudunari komunikatu beharko zaizkio, aplikatzekoa den araudian ezarritako moduan eta epeen barruan.

Zuzendaritzako ardura dutenen eragiketak komunikatzeko obligazioari dagokionez, pertsona horiek egindako eragiketa pertsonalei parekatuta geratzen dira haiekin lotura estua duten pertsonak egindakoak (26. definizioa).

Zuzendaritzako ardura dutenek Betetze Funtzioari komunikatu beharko diote beraiekin lotura estua duten pertsonen identitatea. Era berean, pertsona horiei komunikatu beharko dizkiete, idatziz, titulu honetan ezarritako obligazioak eta pertsona horiei egindako jakinarazpenen kopia bat gorde beharko dute.

3. Eragiketa batzuk exekutatu aurretik baimendu egin beharko direla erabaki ahal izango du Betetze Funtzioak, eragiketa horien zenbatekoa edo arriskua kontuan izanda.

Betetze Funtzioak hala eskatuta, erregelamenduari lotutako pertsonak beti xehetasun osoz eman beharko dute egiten dituzten eragiketa pertsonalen berri, eta, hala eskatuz gero, idatziz gainera.

4. Hileroko komunikazioak eta aurreko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako informazio idatziak modu ordenatuan eta berezita artxibatuko dira sei urtez gutxienez.

Betetze Funtzioak konfidentzialtasun osoa bermatu beharko du, agintari judicial eta gainbegiraleei laguntzeko eginbeharra alde batera utzi gabe.

8. artikulua. Eragiketak egiteko debekuak

1. Entitateetan zuzendaritzako ardura dutenek, ez dute agindurik emango edo eragiketa pertsonalik egingo Entitateen balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei buruz, merkatu arautuan, NSM edo NSA batean negoziatzen direnak badira edo merkatu horietan negoziatzen den azpikoa badute, Entitateek jaulkitzaile gisa argitaratu behar duten edozein informazio publiko aldizkako argitaratu aurreko 30 egun naturaletan. Betetze Funtzioak onartu ahal izango ditu eragiketak, kasuz kasu, aplikatzekoa den araudiak ezarritako baldintzak betetzen badira.
2. Erregelamenduari lotutako pertsonak ez dute agindurik emango edo eragiketarik egingo aldez aurretik Betetze Funtzioak identifikatutako tresnei buruz eta Funtzioak ezarritako denboran zehar.
3. Txostenak eta gomendioak egin, argitaratu edo zabaltzeko ardura duten unitateetako parte diren lotutako pertsonak ez dute eragiketa pertsonalik egingo baloreen eta tresna finantzarioen gainean (erlazionatutako tresna finantzarioak barne) kasu hauetan:
 - a) Jaulkitzaile baten edo haren baloreen analisi zehatza egiten ari den bitartean, analisia hasten denetik informazio horri buruzko gomendioa edo txostena ezagutzera eman, eta hartzaileek bertako informazioa kontuan hartuz jokatu ahal izan arte.
 - b) Txostenak edo gomendioak erreferentzia egiten dien kasuak direnean, gomendioen aurkako eragiketak badira, salbuespeneko kasuetan izan ezik, eta Betetze Funtzioak aurrez onartuta.
4. Aurreko atalean aipatutako abstentzioak ez dira nahitaezkoak izango, eragiketa exekutatzea txostena edo gomendioa egiten hasi aurretik hartutako konpromisoen edo eskuratutako eskubideen ondorio bada, edo konpromiso horiek estaltzeko eragiketen ondorio, nola eta eragiketa oinarritzen ez den txostenaren emaitzak ezagutzean.
5. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, era berean, hierarkikoki txostenak eta gomendioak egin, argitaratu edo zabaltzeko ardura duten unitateetako lotutako pertsonen gainetik daudenei, txostenetako edo gomendioetako edukia eskura badezakete.

9. artikulua. Inbertsio-zorroen kudeaketa diskrezionaleko kontratuak

1. Inbertsio-zorroen kudeaketa diskrezional eta individualizatuaren kontratua kontzertatuta daukaten lotutako pertsonen kasuan, Betetze Funtzioari eman beharko diote horren berri, eta horren kopia bidali.

Betetze Funtzioak, kontratuaren kopia jasotakoan, gai hauek egiaztatuko ditu:

- a) Entitatea legez gaituta dagoela inbertsio-zorroen kudeaketa diskrezional eta individualizatuaren zerbitzua eskaintzeko.
- b) Kontratua bokazioz iraunkorra dela.

2. Betetze Funtzioak sinatutako deklarazio bat eskatu ahal izango die artikulu honetan aipatzen diren lotutako pertsonari. Deklarazio horretan zehaztuko dute beren ondarearen kudeaketari dagozkion inbertsio- eta desinbertsio-erabakiak beraiek parte hartu gabe hartu direla.

3. Behin Betetze Funtzioak kontratuaren kopia jasotakoan eta aurreko puntuak egiaztatuta, eta hark aurkakorik adierazi ezean, 4tik 8rako artikulua ez zaizkie aplikatuko dagokien zorro-kudeatzaileak erabakitako eragiketei.

4. Zuzendaritzako ardura duten pertsonak eta horiekin lotura estua dutenak, ez dira salbuetsita geratuko Kutxabank Taldearen titulu propioen gainean Zorroen kudeaketa diskrezionaleko kontratu baten barruan egiten diren eragiketak deklaratzetik.

III. TITULUA. MERKATU-ABUSUA PREBENITZEA

I. KAPITULUA. INFORMAZIO PRIBILEGIATUA ETA GARRANTZIKOA

1. atala. Eginbehar orokorrak

10. artikulua. Komunikatzeko eginbeharra

Informazio pribilegiatua baliatzen duten lotutako pertsonak Betetze Funtzioari komunikatu beharko diote, lehenbailehen, zuzenean nahiz bere saileko edo bereizitako areako arduradunaren bidez. Jakinarazpen horrek informazioaren ezaugarrien, informazioa jakin zen dataren, eta eragindako baloreen eta tresna finantzarioen berri emango du.

11. artikulua. Abstenitzeko eginbeharra

Informazioa daukaten lotutako pertsonak, pribilegiatua dela dakitenean edo jakin beharko luketenean, galarazita izango dute:

- a) Informazio horretan oinarrituta, edozein eratako aginduak edo eragiketak prestatzea edo egitea, balore negoziagarriekin edo tresna finantzarioekin, edo edonolako kontratuekin, merkatu arautu batean, NSM edo NSA batean negoziatuak izan edo ez.

Informazioak aipatzen dituen balore negoziagarri edo tresna finantzarioei buruzko aginduak ezeztatzea edo aldatzea, agindua pertsonak informazio hori izan aurretik emandakoa denean.

1310/2010 Erregelamenduaren (EB) arabera egindako emisio-eskubideen enkanteak, edo horietan oinarritutako produktuen enkanteak direnean, informazio pribilegiatua erabiltzearen barruan sartuko da, halaber, eskaintza bat norberaren izenean edo hirugarren baten izenean egitea, aldatzea edo ezeztatzea.

Aurrekotik salbuesten da:

- (i) existitze hutsak informazio pribilegiatu bihurtzen dituen eragiketak prestatzea eta egitea;
- (ii) balore negoziagarriak edo tresna finantzarioak erosteko edo lagatzeko obligazio mugaeguneratu bat betetzeko egiten diren eragiketak, baldin eta obligazio hori pertsonak informazio pribilegiatua eskuratu aurretik sinatutako akordio batean jasota badago, eta Betetze Funtzioari jakinarazi bazaio;
- (iii) aplikatzekoa den araudiarekin bat egiten diren bestelako eragiketak.

- b) Informazio pribilegiatua hirugarrenei komunikatzea, laneko, lanbideko edo karguko ohiko eginkizunetan dihardutenean izan ezik.
- c) Informazio hori oinarri hartuta hirugarren bati balore negoziagarriak edo tresna finantzarioak eros edo laga ditzala gomendatzea, edo eroatera edo lagatzera bultzatzea.

Hirugarren bati gomendatzea informazio horretan aipatzen diren balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei buruzko aginduak ezeztatu edo aldatzea, edo horretara bultzatzea.

12. artikulua. Babesteko eginbearra

1. Informazio pribilegiatua baliatzen duten lotutako pertsonak babesteko eginbearra dute, agintari judizial eta administratiboei jakinarazteko eta laguntzeko eginbeharrari kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuz, behar diren neurriak hartuko dituzte informazio hori abusuz edo desleialki erabilia izan ez dadin. Informazio pribilegiatua abusuz edo desleialki erabilia izango balitz, horren berri dakiten pertsonak berehala jakinaraziko diote Betetze Funtzioari.

2. Bereizitako areetako arduradunek behar diren segurtasun-neurriak ezarriko dituzte kanpoko pertsonak sar ez daitezen informazio pribilegiatua duten euskarri fisiko eta telematikoetan.
3. Lotutako pertsona batek bere lanaren, profesioaren edo ahalmenen eginkizun normaletan egindako zundaketak edo merkatu-prospekzioak ez dira izango babesteko eginbearra ez betetzea, baldin eta zundaketa horiek betetzen badituzte legeak gai horretarako ezarritako baldintzak.

2. atala. Baloreen eta tresna finantzarioen jaulkitzaile-izaeratik eratorritako obligazioak

13. artikulua. Dokumentu-erregistroak

Entitateek, baloreen eta tresna finantzarioen jaulkitzaile direnean, eragiketarako sarbidea duten pertsonen dokumentu-erregistro bat egingo dute eragiketa bakoitzeko, eta horren kopia bat bidaliko diote Betetze Funtzioari, eragiketak ukitzen dituen baloreen edo tresna finantzarioen kotizazioan era nabarian eragin dezakeen edozein eragiketa juridiko edo finantzarioen azterketa-faseetan edo negoziazio-faseetan.

14. artikulua. Informazio garrantzitsua babestea

Euren lanean, lanbidean edo funtzioetan normaltasunez jardunez garrantzizko informazioa eskuratzen duten lotutako pertsonak konfidentziasuna gordetzera behartuta daude, eta ezingo dute informazio hori zabaldu komunikabideen bitartez, Internet barne, ez eta beste edozein bitartekoren bidez ere, informazio hori publiko egiten ez den bitartean, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.

15. artikulua. Informazio garrantzitsua zabaltzea

1. Lotutako pertsonak, baloreen edo tresna finantzarioen gaineko eragiketa juridiko edo finantzarioen azterketa-faseetan edo negoziazio-faseetan, eragiketak eragin nabaria izan badezake balore edo tresna horien kotizazioan, behartuta daude informazioaren ezagutza zorrozki mugatzera ezinbestekoa zaien pertsoneri, erakundearen barrukoak izan ala ez.

2. Entitateek, jaulkitzaileak baldin badira, berehala zabaldu beharko dute informazioa, konfidentziasuna garantizatu ezin badute. Bereziki, ondoko kasuetan zabaldu beharko da egitate garrantzitsu bat:

- a) Entitateen balore negoziagarriei edo tresna finantzarioei buruzko informazioa filtratzen denean, edo zurrumurru edo berri faltsuak nahiz engainagarriak sortzen direnean, horien larritasunagatik modu nabarmenean eragin badiezaiokele kotizazioari. Nork sortu dituen alde batera utzita, egitate garrantzitsuak egiazkoak direla adieraziko da, edo, bestela, gezurtatu egingo dira.

Aurrekoari kalterik egin gabe, zurrumurru edo berri faltsu nahiz engainagarriak zabaltzearen eta garrantzizko informazioa filtratzearen berri emango zaio Betetze Funtzioari.

- b) Kontratututako bolumenen edo negoziatutako prezioen ohiz kanpoko bilakaera gertatzen denean Entitateen baloreei edo tresna finantzarioei dagokionez, eta bilakaera hori eragiketa garaiz aurretik, partzialki edo era distorsionatuan

zabaltzearen ondorioa dela pentsatzeko arrazoirik dagoenean. Egitate garrantzitsuan argi eta zehazki azalduko dira informazioa ustez filtratu den eragiketaren nondik norakoak, edo egitateen azalpen objektibo bat egingo da, gerora eman beharko den informazioaren aurrerapen gisa.

- c) Lotutako pertsona batek, bere izenean nahiz Entitateen kontura ari dela, bere lanean, lanbidean edo funtzioetan normaltasunez jardunez informazio pribilegiatua ematen duenean, informazio hori osotasunean egingo da publiko, une horretan bertan, nahita eman bada, edo ahalik eta azkarren, nahi gabe eman bada. Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko informazioa jasotzen duen pertsonak konfidentzialtasun-eginbeharra badu, obligazio hori legezko, arauzko, estatutuzko, edo kontratuzko arau batean oinarritua den ala ez alde batera utzita.

3. Garrantzizko informazioa berehala zabalduko da merkatuan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari komunikatuz.

Informazioa beste edozein bitartekoren bidez zabaltzearekin batera jakinarazi beharko zaio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, eta egitatearen berri izan, erabakia hartu, edo dagokion akordioa edo hitzarmena hirugarrenekin sinatu bezain laster.

4. Entitateen solaskide kualifikatuei dagokie Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraztea erakundean sortutako informazio garrantzitsua. Komunikazioaren edukia egiazkoa, argia, osoa, eta, informazioaren izaerak hala eskatzen badu, kuantifikatua izan beharko da, eta ezingo du nahasmenik edo engainurik eragin jakinarazi beharreko egitateei edo egintzei buruz.

5. Entitateek ziurtatuko dute:

- a) Beraiei buruzko informazio garrantzitsua zabaldu den baloreen eta tresna finantzarioen bilakaera zaintzen dela, eta baita informazio ekonomikoa ematen duten profesionalak eta komunikabideek zabaltzen duten informazioaren bilakaera ere, beraiei eragiten baldin badie, hori guztia informazioa abusuz edo desleialki erabiltzea eragozteko asmoz. Jakinarazitako informazioan aldaketa esanguratsurik egonez gero, berehala jakinaraziko zaio merkatuari, modu berean.
- b) Merkatuari informazio garrantzitsua ematea eta Entitateen jardueren komertzializazioa ez direla nahasten, engainagarria gerta ez dadin.
- c) Merkatuari jakinarazitako gertakaririk esanguratsuen erregistroa eramaten dela.
- d) Entitateen baloreak eta tresna finantzarioak Europar Batasunean araututako merkatu batean edo gehiagotan kotizatzeke onartuta daudenean, modu egokian ziurtatzen saiatzen dela informazio garrantzitsuaren jakinarazpena ahalik eta modurik sinkronizatuenean egiten Entitateek balore eta tresna finantzario horiek kotizatzeke onartzea eskatu edo hitzartu duen Estatu kide guztietako inbertitzaile-kategoria guztien artean.
- e) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazitako egitate garrantzitsu guztien berri ematen zaiela Interneten, Entitateen webguneetan.

16. artikulua. Publikoa informatzeko eginbeharraren salbuespena

Ikusten denean informazioa ezin dela publiko egin, Entitateen interes legitimoei eragiten dielako, Entitateen solaskide kualifikatuetako batek berehala jakinaraziko dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

3. atala. Inbertsio-zerbitzuak ematek eratorritako obligazioak

17. artikulua. Iniziatuen zerrenda

1. Arauen Betegintzako sailak inziatuen zerrenda bat landu eta mantendu beharko du, inbertsio-zerbitzuak ematean eskuratutako informazio pribilegiatua daukan balore eta tresna finantzario bakoitzari buruz, informazio horretarako sarbidea izan duten pertsonen izenekin eta bakoitzaren dataekin.

2. Betetze Funtzioak espresuki informatuko ditu 13. artikuluan aipatutako erregistroetan eta aurreko paragrafoko zerrendetan sartuta dauden pertsonak informazioaren izaeraz eta konfidentzialtasun-eginbeharraz eta erabiltzeko debekuaz, baita erabilera okerra ematek eratorritako arau-hauste eta zehapenez ere. Era berean, erregistroan edo zerrendan sartu izanaren berri emango die interesatuei, eta datu pertsonalen babesari buruzko araudian aurreikusitako bestelako inguruabarrei buruz ere bai.

3. Aurreikusitako erregistroetan eta zerrendetan inskribatutako datuak sei urtez gordeko dira, inskribatu edo azken aldiz eguneratu zirenetik. Era berean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren esku jarriko dira, hark hala eskatuz gero.

18. artikulua. Bereizitako areak zehaztea

1. Administrazio Kontseiluak edo, hala dagokionean, Betetze Funtzioak zehaztuko ditu bereizitako areak eta horietako bakoitzean sartzen diren lotutako pertsonak.

Bereizitako area gisa eratuko dira balore-merkatuekin lotutako jarduerak egiten dituzten Entitateetako sailak edo areak, elkarrengandik ondo bereizita, informazio pribilegiatuaren fluxua eragozteko eta interes-gatazkarik gerta ez dadin beren artean.

Bereziki, eta gutxienez, zorro propioa kudeatzeko jarduerak, besteren zorroak kudeatzekoak eta analisikoak egiten dituzten sailak eratuko dira bereizitako area gisa.

2. Bereizitako area bakoitzak arduradun bat izango du, eta hari dagokio, bere eskumen-eremuaren barruan, kapitulu honetan aurreikusitakoa betetzen dela zaintzea.

3. Lotutako pertsonak jakin beharko dute bereizitako zein areatan dauden kokatuta, area horretako gainerako lotutako pertsonak zein diren, eta nor den arduraduna.

4. Zerbitzuak bereizitako area batean ematen dituztenek, berdin dio zein mailatako kargua duten, dokumentu bat sinatuko dute, dagokien bereizitako areari espresuki erreferentzia eginda, beren funtzioa dela-eta lortu ahal izan duten informazio pribilegiatua beren buruaren mesedetan ez erabiltzeko eta bereizitako areatik kanpoko pertsonari ez transmititzeko konpromisoa beren gain hartuz.

19. artikulua. Bereizitako areen jarduera autonomoa

1. 21 eta 22. artikuluetan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, lotutako pertsonen jokabideak ziurtatu beharko du informazio pribilegiatuaren kudeaketa eta erabaki-hartzea modu autonomoan egiten direla beraiek lan egiten duten bereizitako arean.

2. Inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko sistema bat definitu eta onartuko da, erabaki horiek bereizitako arearen barruan modu autonomoan hartzen direla bermatzeko.

20. artikulua. Hesiak jartzea

1. Bereizitako areetako arduradunek eta Betetze Funtzioak hesiak ezarriko dituzte bereizitako area bakoitzaren eta erakundearen gainerako areen artean, parte hartzen duen eragiketen eta erabiltzen duen informazioaren ezaugarriekin bat.

2. Betetze Funtzioak egiaztapenak egingo ditu aldian-aldian, merkatuan norberaren kontura edo bezeroen kontura egiten diren eragiketetan, nahiz lotutako pertsonak egindakoetan, ez dela informazio pribilegiatuaren erabilera okerrik izan ziurtatzeko, eta, azken finean, informazio-hesien sistema ondo dabilela egiaztatzeko.

21. artikulua. Informazio pribilegiatua bereizitako areen artean transmititzea

1. Bereizitako area baten funtzioak behar bezala gauzatzeko, eragiketa zehatz bat ondo egin ahal izateko, edo erabaki bat hartu ahal izateko informazio pribilegiatua ezinbestekoa gertatzen denean bakarrik izango da posible informazio hori bereizitako areen artean transmititu ahal izatea.

2. Betetze Funtzioak baimena eman beharko du informazio pribilegiatua bereizitako areen artean transmititu ahal izateko.

Baimen horiek emateko, interes-gatazkaren arriskuak izango dira kontuan bereziki, eta baimenen erregistro zehatz eta behar bezain indibidualizatua eramango du Betetze Funtzioak. Inola ere ezingo da baimendu Entitateek hitzartutako konfidentzialtasun-akordioen aurkako informazio-transmisiorik.

22. artikulua. Informazio pribilegiatua hesien gaineratik transmititzea

1. Hierarkikoki, bereizitako areetako arduradunen gaineratik dauden lotutako pertsonak edo organoak (arduradun horrek nahiz berak izendatutako pertsona batek parte hartzen duen batzordeak edo kide anitzeko organoak barne) bereizitako areen gaineko egitura komuntzat joko dira.

2. Dagozkion erabaki-prozesuen markoan, hesien gaineratik hierarkikoki dauden lotutako pertsonen transmititu ahal izango zaie informazio pribilegiatua. Transmisioaren berri eman beharko zaio Betetze Funtzioari.

23. artikulua. Informazio pribilegiatua kanpoko pertsoneri transmititzea

Entitateetatik kanpoko pertsoneri informazio pribilegiatua transmititu behar izanez gero, konfidentzialtasun-konpromiso bat sinatzeko eskatuko zaie informazio horren hartzaileei. Aipatutako informazio-transmisioen berri emango zaio Betetze Funtzioari.

II. KAPITULUA. MERKATUAREN MANIPULAZIOA ETA ERAGIKETA SUSMAGARRIAK

24. artikulua. Abstenitzeko eginbeharra

Lotutako pertsonak ez dute egingo merkatua manipulatzeko edo prezioen osaera librea faltsutzeko praktikarik.

25. artikulua. Eragiketa susmagarrien berri emateko eginbeharra

1. Entitatek uste badute iruzur-zantzu arrazoizkoak daudela susmatzeko baloreei edo tresna finantzarioei buruzko agindu edo eragiketa batek informazio pribilegiatua baliatzen duela edo merkatua manipulatzeko duela edo prezioen osaera librea faltsutzen duen praktika bat dela, horren berri emango dio, lehenbailehen, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali beharreko komunikazioak ondoko informazioa izango du:

- a) Agindu edo eragiketei buruzko azalpena, agindu-mota barne, eta erabilitako negoziazio-metodoa.
- b) Eragiketan informazio pribilegiatua erabili dela edo prezioen osaera librea faltsutzen duen praktikaren bat izan dela susmatzeko arrazoiak.
- c) Besteren kontura egindako eragiketak direnean, pertsona horiek identifikatzeko bideak, eta, egoki bada, eragiketan inplikaturako beste guztienak.
- d) Jakinarazteko obligazioa duen lotutako pertsona bere kontura ala hirugarrenen kontura ari den.

Eragiketa susmagarriekin lotutako beste edozein informazio esanguratsu. Komunikazioa egiteko unean aurreko informazio guztia sartu ahal izango ez balitz, eragiketa susmagarritzat jotzeko dauden arrazoiak aipatuko dira, eta falta den informazioa eskuragarri egon bezain laster bidaliko da.

3. Behin komunikazioa bidalitakoan, inplikaturako pertsonak ezingo dute hari buruz hitz egin.

4. Betetze Funtzioak bidalitako komunikazioen erregistro bat eramango du.

III. KAPITULUA. TXOSTENAK ETA INBERTSIO-GOMENDIOAK

26. artikulua. Leialtasun-, inpartzialtasun-, abstentzio- eta informazio-eginbeharrak

1. Baloreen edo tresna finantzarioen sozietate jaulkitzaileei buruzko txostenak edo gomendioak egiten, argitaratzen edo zabaltzen direnean, lotutako pertsonak leialtasunez eta inpartzialtasunez jokatu beharko dute.
2. Entitateek eta txostenak eta inbertsio-gomendioak egiteko, argitaratzeko edo zabaltzeko ardura duten unitateetako lotutako pertsonak ezingo dute pizgarririk onartu txostenaren edo gomendioaren edukiri buruzko interes nabarmena dutenengandik.
3. Entitateek eta txostenak eta inbertsio-gomendioak egiteko, argitaratzeko edo zabaltzeko ardura duten unitateetako lotutako pertsonak ezingo dute konpromisorik hartu jaulkitzaileekin, aldeko txostenak nahiz inbertsio-gomendioak egiteko.
4. Artikulu honetan aipatutako unitateetako arduradunak programa bat bidali beharko dio Betetze Funtzioari, sei hilabetez behin gutxienez, epe laburrean landuko diren enpresa zehatzei buruzko txostenekin. Era berean, argitaratzen diren txosten guztiak helaraziko dizkio lehenbailehen.

27. artikulua. Betetze Funtzioaren ardurak

1. Betetze Funtzioak informatu eta aholkatuko ditu txostenak eta inbertsio-gomendioak egiteko, argitaratzeko edo zabaltzeko ardura duten unitateak, haien jarduerari aplikatzekoa zaion araudiari buruz, eta, bereziki:
 - a) Txostenak eta gomendioak inpartzialtasunez aurkezteko araei buruz.
 - b) Interes-gatazkei gaineko informazioa emateko araei buruz.
 - c) Hirugarren batek egindako gomendioak zabaltzearen inguruko araei buruz.
- Idatzi gabeko gomendioei aplikatu beharreko araei buruz.
2. Txostenak eta gomendioak argitaratu ondoren, horiek egiteko, argitaratzeko eta zabaltzeko ardura duten unitateek Betetze Funtzioari bidaliko dizkiote.

IV. TITULUA. INTERES-GATAZKAK KUDEATZEKO POLITIKA

28. artikulua. Xedea

Titulu honetan arautzen da Entitateen bezeroen artean eta Entitateen eta bezeroen artean gerta daitezkeen interes-gatazkei aurrea hartzeko eta gatazka horiek kudeatzeko politika orokorra.

Kutxabankek eta CajaSur-ek badute Interes Gatazkak Kudeatzeko Politika inbertsio-zerbitzuen prestazioaren arloan eta Balore Merkatuarenean.

29. artikulua. Interes-gatazkak detektatzea

Inbertsio-zerbitzuak edo zerbitzu lagungarriak, edo baita horien arteko konbinazioa, ematerakoan sor daitezkeen interes-gatazkak identifikatzeko, kontuan hartu beharko da Entitateek edo lotutako pertsonak:

- a) finantza-irabazi bat lor dezaketen edo finantza-galera bat eragotz dezaketen, bezeroaren kontura.
- b) interesen bat ote duten bezeroari emandako zerbitzuaren edo haren izenean egindako eragiketaren emaitzetan, bezeroaren interesarekin bat ez datorrena.
- c) finantza-pizgarririk edo bestelako pizgarririk duten beste bezero baten edo bezero-talde baten interesen alde egiteko, bezeroaren beraren interesen gainerik.
- d) bezeroaren jarduera edo negozio bera duten.
- e) bezeroa ez den beste norbaitengandik pizgarriren bat jasotzen duten bezeroari emandako zerbitzuarengatik, dirutan, ondasunetan nahiz zerbitzutan, zerbitzuaren komisio estandarra edo kostua ez dena.

30. artikulua. Beste interes-gatazka batzuk

Entitateek zehaztu ahal izango dituzte lotutako pertsonak izan litzaketen beste interes-gatazka batzuk, dela familiako loturengatik edo lotura ekonomiko edo profesionalengatik, edo beste edozein arrazoiengatik, jarduketa, zerbitzu edo eragiketa jakin batean, eta, halaber, gatazka horiek konpontzeko erregelak.

31. artikulua. Interes-gatazken aurreko eginbeharrak

1. Lotutako pertsonak interes-gatazkak ekiditen saiatuko dira.

2. Lotutako pertsonak Betetze Funtzioa eta dagokion areako arduraduna informatuko dituzte benetan gertatzen zaizkien interes-gatazkei buruz.

Komunikazioak lehenbailehen egingo dira, eta beti interes-gatazka posibleak ukitu lezakeen erabakia hartu baino lehen.

Lotutako pertsonak informazio hori eguneratuta mantendu beharko dute, eta komunikatutako egoeren edozein aldaketaren edo amaitzearen berri eman beharko dute.

3. Interes-gatazka batek pertsonalki ukituko balitu, lotutako pertsonak abstenitu egingo dira prestamen-egintzetan parte hartzetik, eta erabakitzetik, edo, hala badagokio, botoa ematetik, planteatzen daitezkeen egoeretan, eta horren berri emango diete dagokion erabakia hartu behar duten pertsonari.

32. artikulua. Gatazkak konpontzeko erregela orokorrak

1. Gatazkak ukitzen duen bereizitako areako arduradunak ebatziko du interes-gatazka. Area bat baino gehiago ukitzen baditu, area guztien gainean dagoen lehenengo buru hierarkikoak ebatziko du. Aurreko erregelak aplikatu ezin badira, Betetze Funtzioak izendatutakoak ebatziko du.

Gatazka ebazteko eskumenari edo moduari buruzko zalantzarik egonez gero, Betetze Funtzioari kontsultatu ahal izango zaio.

2. Interes-gatazkak ebazteko, ondoko erregelak hartuko dira kontuan:

- a) Entitateen eta bezero baten arteko gatazka bada, bezeroaren interesa babestu beharko da beti.
- b) Bezeroen arteko gatazka bada:
 - (i) bezeroetako baten alde egitea ekidingo da;
 - (ii) ezingo zaio eman bezero bati beste batek egindako eragiketen berri, inola ere;
 - (iii) bezero bat ezingo da eragiketa bat egitera bultzatu, beste bezeroen bati onuraren bat emateko.

3. Entitateek hartutako neurriak nahikoa ez badira bezeroen interesentzat kaltegarriak izan daitezkeen arriskuak eragotziko direla arrazoiz bermatzeko, Entitateek gatazkaren izaeraren eta jatorriaren berri emango diete bezeroei, eta, haiek hala nahi izanez gero bakarrik burutu ahal izango dira gatazka gertatu den zerbitzuak edo eragiketak.

4. Betetze Funtzioari jakinaraziko zaizkio gatazkari buruzko erabakia eta horren ondorioz gerta daitezkeen gorabeherak.

5. Betetze Funtzioak interes-gatazken erregistro eguneratua eramango du, gertatu diren gatazkak edo zerbitzu edo jarduera jarraituetan gertatzen ari direnak jasotzeko.

33. artikulua. Unitate jakin batzuetarako erregela espezifikoak

Zorro propioaren eta besteren zorroaren bitartekaritza eta kudeaketarako bereizitako areetan beharrezko eta arrazoizko neurriak hartuko dira, hainbat bezeroren artean sor litezkeen interes-gatazkak saihesteko edo murrizteko. Helburu hori lortzeko:

- a) Emandako aginduak edo egindako eragiketak hainbat bezeroren artean banatu behar direnean, aurrez ezarritako irizpide objektiboak aplikatuz egingo da esleipena. Aurrez ezarritako irizpidea edozein arrazoiengatik ezin denean aplikatu, idatziz jasoko da aplikatutako irizpidea zein izan den.
- b) Ahal den heinean, aipatutako jarduerak Entitateetan duten eraginaren arabera, ezaugarri komunak dituzten merkatuen eta bezeroen edo bezero-taldeen arabera bereiziko dira kudeaketa eta bitartekaritza-zerbitzua. Bereziki, bezero instituzionalak bezero partikularretatik bereizteko ahalegina egingo da.

V. TITULUA. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEEN ETA PENSIO-FUNTSEN GORDAILUZAINAZA

34. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Erregelamendu honen 2. artikuluan aurreikusitako arauz gain, lotutako pertsonak diruzaintzako jardueran aplikatu beharreko jokabide-arauak ezagutu eta errespetatu beharko dituzte, eta aplikatzen lagundu. Arau horiek 2. eranskineko 2 eta 3 ataletan jasotzen dira.

35. artikulua. Jokabide-arauak

Lotutako pertsonak inbertsio kolektiboko erakundeen eta pensio-funtsen interesak beren interes propioen aurretik jarri beharko dituzte, inpartzialtasunez eta fede onez jokatu dute, eta, edonola ere, aipatutako erakunde eta funtsen interesak babestuko dituzte.

36. artikulua. Antolamenduzko eskakizunak

Entitateek, gordailutzeko eta administratzeko funtzioak betetzen dituzten pertsonak identifikatuko dituzte, eta dagozkien funtzioak ondo betetzeko behar diren ahalmen zehatzak dituztela egiaztatuko dute.

37. artikulua. Loturadun eragiketak

Betetze Funtzioak sarbide librea izango du Entitateek gordailuzaintzako zerbitzua eskaintzen dien sozietate hauekin egindako eragiketen xehetasunak jasotzen dituen barne-erregistroan:

- a) Inbertsio-sozietateak; letra honetan sartuko dira, orobat, 1. artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitako lotutako pertsonak egindako eragiketak.
- b) Inbertsio kolektiboko gainerako erakundeak.
- c) Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileak, eragiketa horiek ukitzen duten inbertsio kolektiboko erakundearen kudeatzailea sozietatea denean eta gordailuzainak Entitateak.
- d) Pensio-funtsak kudeatzen dituzten sozietateak, funtsaren kudeatzailea sozietatea denean eta gordailuzainak Entitateak.
- e) Talde berekoa den beste edozein entitate, Entitatea gordailuzain duen inbertsio kolektiboko erakunde bat edo pensio-funts bat denean.
- f) Edozein sustatzaile edo haren taldeko entitate, bankua gordailuzain duen pensio-funts bati adskribatutako planen sustatzailea denean.

38. artikulua. Gordailuzainaren bereizketa

1. Inbertsio kolektiboko erakundeen gordailuzaintzako sailak Entitateek gordailuzain gisa jokatzaren duten Inbertsio kolektiboko erakundeen zerrenda bidaliko dio aldi-aldi Betetze Funtzioari, eta baita Entitateek era berean gordailuzain gisa jokatzaren duten pentsio-funtsen sozietate kudeatzaileen zerrenda ere.

2. Entitateek ziurtatuko dute gordailuzaintzako jarduerak honako bereizketa-arau hauek betetzen dituela Entitate kudeatzaileekiko:

- a) Kontseilari edo administratzaile komunik ez edukitzea.
- b) Entitate kudeatzaileen benetako zuzendaritza gordailuzainarengandik independenteak diren pertsoneri esleituko zaie.
- c) Entitate kudeatzaileek eta gordailuzainak egoitza desberdinak izango dituzte, eta haien jarduera-zentroak fisikoki bereizita egongo dira.
- d) Fisikoki bereizita egongo dira kudeaketarako eta gordailuzaintzarako jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak; tresna informatikoen eragotzi egingo dute jarduera baten eta bestearen arduradunen artean interes-gatazkarik sor lezakeen informazio-fluxu oro.

VI. TITULUA. ERREGELAMENDUA APLIKATZEA

39. artikulua. Informazioa

1. Betetze Funtzioak erregelamendu honetan aurreikusitakoa betetzean sor daitezkeen gorabehera guztien berri emango dio organo errektore eskudunari eta/edo hark izendatutako batzordeari.
2. Sei hilabetez behin gutxienez, Betetze Funtzioak txosten bat egin beharko dio organo errektore eskudunari edo hark izendatutako batzordeari, ondoko informazioa sartuz:
 - a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak nahiz balore-merkatuaren arloko beste agintari eskudunen batek burututako ekimen arautzaileen edo bestelako ekimenen laburpena.
 - b) Ebaluazio bat, erregelamendua betetzeari dagokionez, gorabehera nagusien azalpenarekin.

40. artikulua. Intranet korporatiboa

Betetze Funtzioak webgune bat mantenduko du intranet korporatiboan; lotutako pertsona guztiek izango dute sarbidea, eta ondoko edukiak egongo dira bertan:

- a) Erregelamendu hau.
- b) Erregelamendua garatzeko zirkularrak, area espezifikoetarako onartzen direnak barne.
- c) Erregelamenduan aurreikusitako obligazioak betetzeko behar diren inprimakiak.
- d) Bereizitako areen eta bakoitzaren arduradunen zerrenda eguneratua.

41. artikulua. Trebakuntza

1. Mendeko pertsona guztiek jaso beharko dute erregelamenduari buruzko trebakuntza, indarrean jartzen denean edo lotutako pertsona gisa lanean hastean.
2. Gainera, lotutako pertsona guztiek trebakuntza eguneratua jasoko dute, Betetze Funtzioak erabakitako aldizkakotasunarekin.

42. artikulua. Ez-betetzea

Erregelamendu honetan aurreikusitakoa ez betetzeak dagozkion zehapen penal, administratibo edo profesionalak ezartzea ekarri ahal izango du.

Langile-arloan, kasu bakoitzean dagokion zehapen-prozedura bideratu ondoren ezarriko dira zehapenak.

43. artikulua. Aldaketak

1. Organo errektore eskudunak eta/edo hark izendatutako batzordeak zirkularrak eman ahal izango ditu, erregelamendu honetan aurreikusitakoa garatzeko.
2. Erregelamenduaren eguneratzeak, aplikatu beharreko araudiaren aldaketengatik egin behar direnean, organo errektore eskudunak eta/edo hark izendatutako batzordeak onartu ahal izango dituzte.

Xedapen iragankorrak

2017ko urtarrilaren 3ra arte, erregelamendu hau ez zaie aplikatuko NSAetako agindu eta eragiketei, SMEetako hazkunde-merkatuetakoei, emisio-eskubideei eta horietan oinarritutako produktu substatuei.

1. ERANSKINA- DEFINIZIOAK

1. Bereizitako area

Bereizitako areak dira balore-merkatuekin lotutako jarduerak egiten dituzten entitateetako sailak edo areak, erregelamendu honen ondorioz elkarrengandik ondo bereizita egon behar dutenak, beren artean interes-gatazkarik sor ez dadin eta informazio pribilegiatua oker erabiltzea edo transmititzea eragozteko, eta, horrela, area bakoitzak erabakiak modu autonomoan hartuko dituela bermatzeko.

2. Hesiak

Hesizat hartzen dira bereizitako areen arteko estankotasuna bermatzeko ezarri behar izaten diren elementu fisikoak, elektronikoak edo bestelakoak eta prozedurak.

Hesiak era hauetakoak izan daitezke:

- a) Hesi fisikoak: bereizketa fisikoko neurriak eta area mugatuak.
- b) Informazioari dagozkion hesiak: dokumentu eta artxibo fisiko eta elektronikoaren babesa, hala nola, informazioan sartzeko gakoak ezartzea, eragiketak gako-izenekin identifikatzea, eta antzeko beste batzuk.
- c) Komunikazio-hesiak: idatzizko jakinarazpenak nahiz jakinarazpen elektroniko edo telefonikoak kontrolatzeko neurriak, eta iruzkinak edo komunikazioak murriztea, besteak beste.

3. Interes-gatazka

Interes-gatazka gertatuko da lotutako pertsonen jarduera-inpartzialtasuna konprometi daitezkeenean, behatzaile neutral baten iritziz, eta hori dela-eta bezero baten interesak kaltetuta atera daitezkeenean.

4. Inbertsio-zorroak kudeatzeko kontratua

Inbertsio-zorroak kudeatzeko kontratu baten ondorioz, lotutako pertsona batek bere ondare higigarriaren kudeaketa osoa edo partziala egiteko ardura ematen dio lege horretarako baimendutako erakunde bati, baloreak eta horien emaitzak eta errentagarritasuna inbertitzeko, desinbertitzeko eta mantentzeko erabakiak hartzeko aukera diskrezionala barne, eta lotutako pertsona horrek erabaki horietan parte hartu gabe.

5. Lehengaien spot kontratua

Spot merkatu batean negoziatzen den lehengai bat hornitzeko edo entregatzeko kontratuak, lehengaia azkar entregatzeko transakzioa uztartutakoan, eta tresna finantzarioa ez den lehengai bat hornitzeko edo entregatzeko kontratuak, gerokoen kontratuak barne hartuz, entrega fisikoki egiten denean.

6. Gordailuzaintza

Gordailuzaintzako jarduera egiten duten entitateak dira inbertsio kolektiboko erakundeen baloreak, eskudirua eta, oro har, erakunde horien inbertsiogai diren aktiboak gordailutzeko eta zaintzeko uzten zaizkienak eta, era berean, erakunde horien sozietate kudeatzaileek (eta, kasua denean, sozietate-forma duten inbertsio kolektiboko erakundeen administratzaileek) egiten duten kudeaketa zaintzeko ardura dutenak, eta azaroaren 4ko 35/2003 Legeak esleitzen dizkien bestelako funtzioak betetzen dituztenak.

Era berean, gordailuzaintzako jarduera da pentsio-funtsetan sartzen diren balore higigarriak eta gainerako aktibo finantzarioak zaindu eta gordailutzeko zerbitzua ematea, funts horien sozietate kudeatzaileek egiten duten kudeaketa zaintzea, eta Pentsio Plan eta Funtsen Legearen testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak) gordailuzainei esleitzen dizkien funtzioak betetzea.

7. Emisio-eskubideak

2003/87/EE Direktibak (emisio-eskubideen merkataritza-erregimena arautzen duenak) tratatzen dituen emisio-eskubideak.

8. Lehengaien gaineko deribatuak

600/2014 Erregelamenduak (EB) 2(1) artikulua (30) apartatua definitzen ditu lehengaien gaineko produktu deribatuak.

9. Entitate jaulkitzailea

Entitate jaulkitzailea da edozein balore edo tresna finantzario merkatu arautu batean, edo Europar Batasunean egoitza duen NSM edo NSA batean jaulkitzen duena edo jaulkitzeko asmoa duena.

10. Benchmark edo erreferentziako indizeak

Argitaratzen den edo publikoaren esku jartzen den edozein rating, indize edo zifra, aldizka edo erregulartasunez kalkulatzen dena formula bat aplikatuz aktibo edo prezio baten edo gehiagoren gainean, barne hartuz prezioen estimazioak, interes-tasa errealak nahiz estimatuak, edo bestelako balio edo inkesta batzuk, eta erreferentzia gisa balio duena tresna finantzario batean ordaindu behar den kopurua kalkulatzeko edo tresna finantzario baten balioa zehazteko.

11. Informazio pribilegiatua

1. Informazio pribilegiatua da balore negoziagarri edo tresna finantzario bati edo gehiagori, edo aipatu balore negoziagarri edo tresna finantzario horien jaulkitzaile bati edo gehiagori zuzenean edo zeharka erreferentzia egiten dien informazio zehatza, oraindik publiko egin gabea, eta, publiko eginez gero, eragin nabarmena izango lukeena balore negoziagarri edo tresna finantzario horrek merkatua arautu batean, Negoziazio Sistema Multilateral (NSM) batean edo Negoziazio Sistema Antolatu (NSA) batean izango lukeen kotizazioan.

Kotizazio-kontzeptuaren barruan sartzen da, balore negoziagarri edo tresna finantzarioei dagokienaz gain, haiekin lotutako tresna finantzario deribatuen kotizazioa ere.

Lehengaien gaineko deribatuei dagokienez, informazio pribilegiatua izango da deribatu horietako bati edo gehiagori zuzenean edo zeharka erreferentzia egiten dion informazio zehatza, edo lehengaien spot kontratu bati zuzenean erreferentzia egiten diona, oraindik publiko egin gabea, eta, publiko eginez gero, eragin nabarmena izango lukeena deribatu horien edo lehengaien gaineko spot kontratuen balioan; edo argitaratuko dela espero den informazioa, edo legeak, merkatuko erregelak, praktikak edo usadioek agindutakoaren arabera argitaratu beharrekoa dena lehengaien gaineko merkatu garrantzitsuetan edo spot merkatuetan.

Emisio-eskubideei eta horietan oinarritutako produktu subastatuei dagokienez, informazio pribilegiatua izango da tresna horietako batekin edo gehiagorekin zuzenean edo zeharka erlazionatutako informazio zehatza, oraindik publiko egin gabea, eta, publiko egin izanez gero, tresna horien balioan edo horien gaineko deribatuen prezioan eragin nabarmena izan lezakeena edo izango lukeena.

Informazio batek kotizazioaren gainean eragin nabarmena izan dezakeela pentsatuko da, informazio hori zentzuzko inbertitzaile batek bere inbertsio-erabakien oinarri gisa erabiltzeko modukoa denean.

Era berean, informazio bat zehatza dela ulertuko da, gertatzen ari diren (edo gertatuko direla espero izatekoa den) zirkunstantzia batzuen berri ematen badu, edo gertatu den (edo gertatuko dela espero izatekoa den) egitate baten berri, baldin eta informazio hori behar bezain espezifikoa bada ondorioztatzeko zirkunstantzia edo egitate horiek balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen prezioetan (edo horien gaineko tresna deribatuenean) izan dezaketen eragina. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko zaie, orobat, merkatu batean edo kontratazio-sistema antolatu batean negoziatzeko onarpen-eskaera bideratuta duten balore

negozialarrii edo tresna finantzarioei.

2. Balore negoziagarrii edo tresna finantzarioei dagozkien aginduak exekutatzeko ardura izango duten pertsoni dagokienez, informazio pribilegiatuta izango da, baita ere, bezero batek burutu gabeko bere aginduei buruz transmititutako informazio zehatza, zuzenean edo zeharka baloreen edo tresna finantzarioen jaulkitzaile bati edo gehiagori erreferentzia egiten diona, edo balore edo tresna finantzario bati edo gehiagori erreferentzia egiten diona, eta publiko eginez gero eragin nabarmena izango lukeena balore edo tresna finantzario horien kotizazioan, edo horiekin lotura duten tresna finantzario deribatuen kotizazioan edo erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratuen prezioan.

12. Garrantziko informazioa

Garrantziko informazioa dela esango da, informazio hori ezagutzeak inbertsiogilearengan eragina badu baloreetan edo tresna finantzarioetan inbertitzeko erabakiak hartzeko, edo tresna finantzario deribatuetan, lehengaien gaineko spot kontratuetan eta emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuetan inbertitzeko, eta, beraz, eragina izan badezake horien prezioan edo kotizazio-balioan merkatu arautu, NSM edo NSA batean.

13. Inbertsio kolektiboko erakunde harmonizatu gabeak

Ez dira inbertsio kolektibo erakunde (IKE) harmonizatuak izango, inbertsio alternatibokoak direnean eta, beraz, 2011/61/EB direktibak, inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileari buruzkoak, edo direktiba hori ordeztzen duen beste batek, araututakoak.

14. Tresna finantzarioak

2014/65/EU (MiFID II) Direktibaren 4(1) artikuluko (15) apartatuan definitzen diren tresna finantzario guztiak.

15. Erlazionatutako tresna finantzarioak

Tresna finantzarioak erlazionatuak izango dira, horien prezioan eragin estua badute inbertsio bati buruzko txostenaren edo gomendioaren objektu den beste tresna finantzario baten prezioaren gorabeherak, tresna finantzario horren gaineko deribatu bat barne hartuta.

16. Merkatu-manipulazioa

Kotizazioen manipulaziotzat hartzen da prezioen osaera librea faltsutzen duten praktikak prestatzea edo egitea. Merkatu-manipulazioak dira:

- a) Eragiketak edo aginduak, edo beste edozein jarduketa:
 - adierazgarri faltsuak edo engainagarriak ematen badituzte edo eman baditzakete balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen, lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen eskaintzari, eskaerari edo prezioari buruz.
 - adostuta jarduten duten pertsona baten edo gehiagoren bidez tresna finantzario baten edo gehiagoren, lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen prezioa ohiz kanpoko maila batean edo maila artifizial batean ziurtatzen badute; nola eta eragiketak egin dituen, aginduak eman dituen edo jarduketak burutu dituen pertsonak ez duen frogatzen bere arrazoiak legítimoak direla eta kasu bakoitzean dagokion merkatu arautuan onartutako praktiken araberakoak.
- b) Baliabide fiktizioak edo bestelako engainuak edo trikimailuak baliatzen dituzten eragiketak edo aginduak edo bestelako jarduketak, balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen, edo erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen prezioan eragina badute edo izan badezakete.
- c) Komunikabideen bitartez, Internet barne, edo bestelako edozein baliabide erabiliz informazioa zabaltzea, adierazgarri faltsuak edo engainagarriak ematen baditu edo eman baditzake tresna finantzarioei, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen eskariari edo prezioari buruz, barne hartuz zurrumurru eta berri faltsuak edo engainagarriak zabaltzea, baldin eta informazio hori zabaldu duen pertsonak jakingo balu edo jakin beharko balu informazioa faltsua edo engainagarria zela. Gauza bera aipatutako ekintzen xedea produktu horien prezioa seguratzeko denean ere.
- d) Indizeei buruzko informazio faltsua edo engainagarria transmititzea, datu faltsuak edo engainagarriak ematea, hori egiten duen pertsonak baldin badaki edo jakin beharko balu faltsuak edo engainagarriak direla, eta, halaber, indizearen kalkulua manipulatzeko egiten den edozein ekintza.

Era beran, merkatu-manipulazioa izango dira, besteak beste, honako jokabide hauek:

- e) Pertsona batek edo batzuek adostuta jardutea balore edo tresna finantzario baten, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu baten edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuen eskaintzaren edo eskariaren gain posizio menderatzaile bat ziurtatzeko, eta, horren ondorioz, zuzenean edo zeharka erosteko edo saltzeko prezioak finkatzea edo negoziazio-baldintza ez-ekitatiboak finkatzea.

- f) Balore edo tresna finantzario bat merkatua irekitzeko edo ixteko unean saltzea edo erostea, irekierako edo itxierako kotizazioetan oinarrituta jarduten duten inbertsiogileak erratzera eramateko ondorioarekin.
- g) Merkatu edo negoziazio-sistema batean aginduak ematea, aginduak ezeztatzea edo aldatzea barne, eskuragarri dagoen edozein negoziazio-metodoren bitartez, elektronikoak, algoritmikoak eta maiztasun handiko negoziazio-estrategiak barne, goiko a) edo b) letretan aurreikusitako ondorioetakoren bat baldin badu:
- a) Merkatuaren edo negoziazio-sistemaren funtzionamendua asaldatzen duelako edo horretara eraman dezakeelako;
 - b) beste pertsona batzuei merkatu edo sistemako benetako aginduak identifikatzea eragozten dielako, edo horretarako bide ematen duelako, barne hartuz aginduen liburua gehiegi kargatzen edo desegonkortzen duten aginduak sartzea;
 - c) tresna finantzario baten eskaintzari, eskariari edo prezioari buruzko seinale faltsu edo engainagarri bat sortzen duelako edo sortzen laguntzen duelako, batez ere joera bati hasiera emateko edo joera areagotzeko aginduak emanez;
- h) Komunikabide tradizional nahiz elektronikoetarako sarbide puntuala edo aldizkakoa baliatzea balore edo tresna finantzario bati, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu bati edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatuei buruzko iritzi bat zabaltzeko, edo, zeharka, horien jaulkitzaileari buruzko iritzia emateko, balore edo tresna finantzario horri buruzko posizioak hartu ondoren eta, beraz, balore edo tresna finantzario, erlazionatutako lehengaien gaineko spot kontratu edo emisio-eskubideetan oinarritutako produktu subastatu horri buruz emandako iritziak izan duen eraginaren onura jaso ondoren, interes-gatazka horren berri eman gabe iritzi publikoari, modu egoki eta eraginkor batez.
- i) Bigarren mailako merkatuan emisio-eskubideak edo erlazionatutako deribatuen erostea edo saltzea, enkantea egin aurretik 1031/2010 (EB) Erregelamenduaren arabera, eta, ondorioz, produktu subastatuen adjudikazio-prezioa maila anormal edo artifizialean finkatzea edo enkanteetako eskaintzagileak nahastea edo engainatzea.
- j) Ekonomia Ministerioak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak prezioen osaera librearen aurkako praktika gisa zerrendatzen edo deskribatzen dituen oro.
- k) Lehengaien gaineko spot kontratuak, energia-handizkarien produktuak ez direnean, transakzioak, aginduak edo jarduketak eragina badu edo izan badezake merkatu arautuetan, NSM edo NSAetan negoziatzen diren balore negoziagarrien edo tresna finantzarioen balioan, edo aurreko horien mendeko balioa duten edo horietan eragina duten tresna finantzarioen prezioan (esate baterako, Credit Default Swap edo Diferentzia bidezko Kontratu Finantzarioak).
- l) Tresna finantzarioak, deribatuen kontratuak edo kreditu-arriskua transferitzeko tresna deribatuen barne, transakzioak, aginduak, eskaintzak edo jarduketak eragina duenean edo izan dezakeenean tresna horien prezioaren edo balioaren arabera prezioa edo

balioa ezartzen zaion lehengaien gaineko spot kontratu baten prezioan edo balioan.

m) Indizeei buruzko jarduketak (benchmark).

17. Lehengaiak

1287/2006 (EE) Batzordearen Erregelamenduaren 2. artikuluko 1. apartatuan definitzen diren lehengaiak.

18. SME hazkunde-merkatuak edo ETE hedapen-merkatuak

2014/65/UE (MiFID II) Direktibaren 33. artikulua arabera, SME hazkunde-merkatu edo ETE hedapen-merkatu gisa erregistratutako NSM bat.

19. Merkatu arautua

Sistema multilateral bat, merkatuko organo errektore batek kudeatua, sistemaren barruan eta bere arau ez-diskrezionalen arabera, tresna finantzarioak erosteko eta saltzeko hirugarren askok dituzten interes desberdinak biltzen dituena edo biltzeko aukera ematen duena, negoziazioan onartutako tresna finantzarioei buruzko kontratuak egiteko, bere arau edo sistemen arabera, eta onartuta dagoena eta erregularitasunez funtzionatzen duena 2014/65/UE (MiFID II) Direktibaren III. tituluan ezarritakoarekin bat.

20. Spot merkatua

Lehengaien merkatua, lehengaiak eskudirutan saltzen direna eta transakzioa uztartutakoan azkar hornitzen edo entregatzen direna, eta beste merkatu ez-finantzario batzuk, hala nola lehengaien gaineko gerokoen merkatuak.

21. MTF edo NSM

Negoiazio Sistema Multilateral, inbertsio-zerbitzuetako enpresa batek edo merkatuko organismo errektore batek operatua, sistemaren barruan eta arau ez-diskrezionalen arabera, tresna finantzarioak erosteko eta saltzeko hirugarren askok dituzten interesak bilduz kontratuak egiteko, 2014/65/UE (MiFID II) Direktibaren II. tituluan ezarritakoarekin bat.

22. Eragiketa pertsonalak

Eragiketa pertsonalak dira lotutako pertsonak beren ondarearekin baloreen eta tresna finantzarioen gainean egiten dituzten eragiketak.

23. OTF edo NSA

Kontratazio- edo negozioazio-sistema antolatua, multilateral, merkatu arautua edo NSM ez dena, bonuak eta obligazioak, titulazioak, emisio-eskubideak edo deribatuak erosteko eta saltzeko hirugarren askok dituzten interes desberdinak tratatzen dituen kontratuak egiteko, 2014/65/UE (MiFID II) Direktibaren II. tituluan xedatutakoarekin bat.

24. Lotutako pertsonarekin familia-harremana duen pertsona

Ondokoak joko dira lotutako pertsonarekin familia-harremana duten pertsonatzat:

- a) Lotutako pertsonaren ezkontidea edo maila bereko harreman afektibo bat duena, estatuko legeriaren arabera.
- b) Lotutako pertsonak bere kargura dauzkan seme-alabak edo seme-alabaordeak.
- c) Lotutako pertsonarekin bizi diren gainerako senitartekoak, eragiketa pertsonala egin baino urtebete lehenago gutxienez berarekin bizi badira.

25. Zuzendaritzako ardura duten pertsonak

Entitate jaulkitzaileko pertsona bat:

- a) Entitateko administrazio-, kudeaketa- edo gainbegiratze-organoko kide bada, edo
- b) Aurreko a) letran aipatutako organoetako kide izan gabe, goi-zuzendaritzakoa bada eta, zuzenean edo zeharka, ohiko sarbidea badu entitate horri buruzko informazio pribilegiaturako, eta entitate horren etorkizuneko bilakaeran eta enpresa-perspektibetan eragina izango duten kudeaketa-arloko erabakiak hartzeko eskumena badu.

26. Lotura estua duen pertsona

Lotura estua duten pertsonak izango dira:

- a) Ezkontidea edo zuzenbide nazionalan ezkontidearen parekotzat jotzen den pertsona;
- b) Bere kargura dituen seme-alabak, zuzenbide nazionalaren arabera;
- c) Eragiketa egin baino urtebete lehenagotik gutxienez berarekin bizi den beste edozein senitarteko, edo
- d) Aurreko a), b) eta c) letretan aipatutako pertsona batek zuzendaritza-kargu bat edo zuzendaritzako ardura duen pertsona juridiko, fideikomiso (trust) edo elkarte bat, edo pertsona horrek zuzenean edo zeharka kontrolatzen duen bat, edo pertsona horren onurarako sortu den bat, edo neurri handi batean pertsona horren interes ekonomiko

berdinak dituena.

27. Bitarteko pertsonak

Beren izenean, lotutako pertsonen konturako eragiketak egiten dituzten pertsonak.

28. Onartutako merkatu-praktikak

Onartutako merkatu-praktikatzat hartzen dira bigarren mailako merkatu ofizial batean nahiz gehiagotan egiten diren edo egingo direla espero daitekeen merkatu-praktikak, Europako Balore Merkatuaren Agintaritzak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartuta daudenak.

CNMVk ondoko puntuak izango ditu kontuan merkatu-praktikak onartzeko:

- a) Dagokion merkatu-praktikaren gardentasun-maila, merkatu osoarekiko.
- b) Merkatuko indarren jarduna ziurtatu, eta eskaintzaren eta eskariaren arteko interakzio egokia zaindu beharra. Ondorio horietarako, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak dagokion merkatu-praktikaren eragina aztertuko du merkatuko parametro nagusiekiko: praktika aurrera eraman aurretik merkatuan dauden baldintzak, saio bakar bateko batez besteko prezio ponderatua edo eguneko itxiera-prezioa.
- c) Dagokion merkatu-praktikak merkatuaren likidezian eta efizientzian duen inpaktuaren indarra.
- d) Praktika hori zenbateraino egokitzen zaien merkatuko negoziazio-mekanismoei, eta merkatu horretan parte hartzen dutenei zenbateraino ematen dien aukera aipatutako praktikak sortzen duen merkatu-egoera berriari ondo eta bizkor erantzuteko.
- e) Praktika horrek zenbaterainoko arriskua ekarriko dion, dagokion balore edo tresna finantzarioarekin, zuzenean nahiz zeharka, erlazionatutako Europar Batasuneko merkatu arautu nahiz ez arautuen integritateari.
- f) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, balore-merkatuaren arloko beste agintari eskudunen batek edo beste erakunde erregulatzaile batek merkatu-praktika horri buruz egindako edozein ikerketaren ondorioak, eta, bereziki, aipatutako praktikak merkatu-abusua prebenitzeko ezarritako arauak edo xedapenak urratzen dituztenean edo jokabide-kodeak urratzen dituztenean, bai merkatu horretan eta bai Europar Batasunean zuzenean nahiz zeharka lotutako merkatuetan.

Merkatuaren egitura-ezaugarriak, eta batez ere, arautua den ala ez, nolakoak diren negoziatutako tresna finantzarioak eta merkatu horretan parte hartzen dutenak, eta, bereziki, inbertsiogile txikien partaidetzak duen garrantzi erlatiboa. Merkatuko praktika bat, eta bereziki merkatu-praktika berria edo emergentea bada, ez da inoiz hartuko praktika onartezintzat Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lehenago onartu ez

duelako bakarrik.

29. Inbertsio-gomendioa

Gomendio gisa hartuko da publikoari zuzentzen zaion informazio oro balore edo tresna finantzario bati edo gehiagori buruz edo haien jaulkitzaileei buruz, barne hartuz tresna horien oraingo edo etorkizuneko balioari edo prezioari buruzko edozein txosten inbertsio-estrategia bat aholkatzen edo iradokitzen duena.

Inbertitzeko estrategia aholkatu edo iradokitzen duen informazio gisa hartuko dira:

- a) Analisisile independente batek, inbertsio-enpresa batek, kreditu-erakunde batek, gomendioak egitea jarduera nagusitzat duen pertsona batek, edo aurreko horietako edozeinentzat, lan-kontratu baten bidez nahiz bestela, lan egiten duen pertsona fisiko orok landutako informazioa, zuzenean edo zeharka inbertitzeko gomendio zehatza egiten badu, tresna finantzario bati buruz edo jaulkitzaile bati buruz.
- b) Tresna finantzario bati buruz inbertitzeko erabakia zuzenean gomendatzen duen informazioa, gomendio hori egiten duen pertsona aurreko paragrafoan aipatua izan ez arren.

30. Zundaketak eta merkatu-prospekzioak

Transakzio bat iragarri aurretik eta inbertsiogileek transakzio potentzialari eta haren baldintzei buruz izan dezaketen interesa baloratzeko, eta, halaber, tamaina edo prezio potentziala neurtzeko xedearekin, inbertsiogile potentzial bati edo gehiagori jaulkitzaileak berak egiten dien informazio-komunikazioa, edo bigarren mailako eskaintzaile batek egiten diena (agindua tamaina batekoa bada eta ez ohikoa eta inbertsiogile potentzialaren alde aurreko balorazioa eskatzen duen entregatzeko metodoa badu) edo emisio-eskubideen partaide batek edo horien izenean edozein hirugarrenek egiten diena.

31. Baloreak eta tresna finantzarioak

Balore eta tresna finantzariotzat ulertzen dira:

- a) Pertsonak edo entitateek, publiko nahiz pribatuek, jaulkitzen dituzten balore negoziagarriak, jaulkipenetan taldekatuta.
- b) Edozein motatako kontratuak, bigarren mailako merkatu ofizial edo ez ofizial batean negoziatzen badira.
- c) Eperako kontratu finantzarioak, opzioen kontratu finantzarioak eta truke finantzarioko kontratuak, kontratu horien objektua balore negoziagarriak, indizeak, dibisak, interes-tasak, edo finantza-izaerako beste edozein azpiko mota bada, likidatzen diren modua kontuan hartu gabe eta bigarren mailako merkatu ofizial nahiz ez-ofizial batean

negoziatzen direnak ez izan arren.

- d) Aurreko letretan aipatzen ez diren tresnei buruzko kontratuak nahiz eragiketak, bigarren mailako merkatu ofizial nahiz ez-ofizial batean negozia badaitezke, baita azpikoa ez-finantzarioa bada ere; horien barruan sartzen dira ondorio horietarako, besteak beste, salgaiak, lehengaiak eta beste edozein ondasun fungible.

32. Entitateen baloreak eta tresna finantzarioak

Entitateen balore eta tresna finantzario gisa hartzen dira, aurreko puntuan zerrendatutakoan artean, Kutxabankek eta CajaSur-ek jaulkitakoak edo abalatutakoak.

33. Lotura estuak

Lotura estutzat hartzen dira:

- a) Enpresa baten boto-eskubideen edo kapitalaren 100eko 20a edukitzea zuzenean edo zeharka, edo
- b) Kontroleko lotura izatea. Kontrola dagoela ulertuko da hauetako zirkunstantziaren bat gertatzen denean:
- boto-eskubideen gehiengoa edukitzea;
 - administrazio-organoetako kideen gehiengoa izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmena edukitzea;
 - hirugarrenekin egindako akordioen bidez, boto-eskubideen gehiengoa eduki ahal izatea;
 - administrazio-organoko kideen gehiengoa izendatu izana.

2. ERANSKINA. APLIKATZEKO DEN INDARREKO LEGERIA

1. Balore-merkatuetako jokabide-arauak ondoko xedapenetan jasotzen dira:
 - a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko apirilaren 16koa, merkatu-abusuari buruzkoa (merkatu-abusuaren erregelamendua edo MAE), eta erregelamendu hori garatzeko emandako erregelamendu eta direktiba europar guztiak.
 - b) Balore Merkatuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua.
 - c) 217/2008 Errege Dekretua, otsailaren 15ekoa, inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako entitateen erregimen juridikoari buruzkoa, eta Inbertsio kolektiboko erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamendua (azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuak onartua) aldatzen duena.
 - d) 1333/2005 Errege Dekretua, azaroaren 11koa, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legea garatzen duena merkatu-abusuko gaietan, edo hura ordeztzen duen edozein.
 - e) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren abenduaren 29ko 3/1993 Zirkularra, eragiketen erregistroari eta aginduen frogagirien artxiboari buruzkoa.
 - f) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren martxoaren 27ko 1/1996 Zirkularra, balore-merkatuko eragiketetan bezeroekin izan beharreko jarduketa-arauei, gardentasunari eta identifikazioari buruzkoa.
 - g) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 2/2000 zirkularra, maiatzaren 30ekoa, inbertsio-zorroen kudeaketa diskrezional eta indibidualizatuaren kontratu-ereduaren modelo normalizatuei buruzkoa, eta 1999ko urriaren 7ko Aginduaren beste garapen batzuk, inbertsio-zorroen kudeaketan jokabide-kode orokorra eta jarduketa-arauak garatzen dituena.
2. Inbertsio kolektiboaren arloko jokabide-arauak ondoko aginduetan jasota daude:
 - a) Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen VI. tituluaren I. kapitulua.
 - b) Inbertsio kolektiboko erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduaren (uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartuaren) VI. titulua.
 - c) Europako Batzordearen 2016/438 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2015eko abenduaren 17koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/65/EE Direktiba osatzen duena gordailuzainen obligazioen arloan.
3. Pentsio-funtsen arloko jokabide-arauak Pentsio Planen eta Funtsen Erregelamenduan, otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuak onartuan, jasotzen dira, 85 bis, 85 ter eta 85 quater artikuluetan.